

# EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2014-2017



<b>1. SARRERA</b> .....	3
<b>2. PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK</b> .....	5
2.1. PROZESUAREN HELBURUAK.....	5
2.2. PROZESUAREN ESKEMA ETA KRONOGRAMA .....	6
2.3. METODOLOGIA.....	10
<b>3. EMAITZAK</b> .....	11
3.1. DIAGNOSTIKOA.....	11
3.1.1. Datu kuantitatiboak.....	11
3.1.2. Datu kualitatiboak .....	29
3.2. DISEINUA .....	37
3.2.1.Oinarriak .....	37
3.2.2.Plan estrategikoa (2013-2017) .....	40
3.2.3. Adierazleak .....	81
3.2.4. Kronograma .....	89
<b>4. 2014. URTEKO PLANA</b> .....	93
<b>5. ERANSKINAK</b> .....	101
5.1. PROZESUAN PARTE HARTU DUTENEN ZERRENDA .....	101



## 1. SARRERA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak bere sorreratik euskara normalizatzeko planak egin ditu, eta beti urtebeteko planak izan dira. Azken urteotan, mankomunitateko batzordeetan eta euskalgintzako eragileen artean epe ertain edo luzerako norabidea markatuko lukeen plan estrategiko baten beharra aipatu izan da maiz. Hori dela eta, 2012. urtean, lehenik herrietako batzordeetan eta ondoren Batzorde Erabakitzailean, plan estrategikoa egiteko ideia indarra hartzen hasi zen.

Hasieratik argi geratu zen plan horrek gogoeta prozesu parte hartzaile baten ondorio izan behar zuela, eta Bortzirietako euskalgintzako eta bertze hainbat arlotako eragileen iritzia eta ideiak bildu behar zituela. Oinarri horiek aintzat hartuta abiatu zen *Euskara Bortzirietan. Gogoeta prozesua*, otsailetik ekainera artean garatu dena.

Horrelako gogoeta prozesuek aukera ematen dute, plangintza diseinatzeko ez ezik, geldialdi bat egiteko eta eguneroko dinamikatik haratago begiratzeko; orain arte egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, emandako aurrerapausoak aztertu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta, azken batean, egungo egoeraren diagnostikoa egiteko. Geldialdi horrek egiten ari garenaren zentzuan kokatzen laguntzen digu, etorkizunera begira jarraitu beharreko norabidea marrazteko oinarriak edo irakasbideak eskaintzen dizkigu, eta horiek egikaritzeko indar eta energia pertsonal nahiz kolektiboa berpizten laguntzen du.

Halaber, abagune hori proposa izan ohi da jauzi kualitatiboak emateko. Errate baterako, herrian euskararen aldeko sentsibilizazio lana egiteko, euskararen aldeko jarrerak, jokabideak eta konpromisoak aktibatzeak, edota euskararen garapenaren aldeko lanean ari diren elkarte eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren areagotzeak; azken batean, hizkuntza komunitatea egituratu eta sendotzeko.

Gogoeta prozesua garatzeko, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izan du. Txosten honetan prozesuaren nolakoa, egoeraren diagnostikoa eta plan estrategikoaren diseinua jasotzen dira.



## EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2014-2017

Plan estrategikoa osatzeko gogoeta prozesuan landu diren ideiak hartu dira oinarri gisa. Baina horrez gain, bertze bi oinarri ere izanen ditu planak: batetik, orain arteko plangintzetan landu diren jarduera eta ildo batzuk jarraipena izanen dute datozen urteotan; bertzetik, euskara zerbitzuak proposatzen dituen lan ildo batzuk ere jaso dira. Plan estrategikoa 2014-2017 aldirako izanen da. Epe horretan urteroko plan zehatza egingen da, plan orokor honetan oinarrituta.



## 2. PROZESUAREN NONDIK-NORAKOAK

### 2.1. PROZESUAREN HELBURUAK

#### Helburu orokorra:

- ⇒ Bortzrietako gizarte eragile eta herritarren iritziak eta orain arteko ibilbidea kontuan izanda, datozen urteetako euskararen plan estrategikoa diseinatzea.

#### Zehatzak:


- Aurreko lanaren balantzea egitea eta ondorioak ateratzea: esparru estrategikoetan garatu diren ekintzen oihartzuna eta eragina baloratzea, ongi egindakoak identifikatu eta hutsuneak edo hobetzekoak atzematea.
- Eragile eta herritarrek beren sektoreko euskararen egoeraren inguruko gogoeta eta diagnostikoa egitea.
- Etorkizunari begira, Bortzrietan euskararen erabilera handitzeko aukerak eta bideak identifikatzea, eta horren arabera euskararen plan estrategikoaren ildo nagusiak adostasunez finkatzea.

#### Zeharkakoak:

- Gizarte eragileak eta herritarrak euskararen egoeraz jabetzea eta beren hizkuntza ohiturez gogoeta egitea.
- Euskararen aldeko sentsibilizazio lana egitea, herritarren euskararen aldeko jarrerak hobetzea eta euskararen aldeko jarrera aktiboa izan dezaketen herritarrak biltzea.
- Herritarren eta udal agintarien artean elkarlanerako gune berriak zabaltzea eta parte hartzeko kultura sustatzea, euskararen plan estrategikoa egiterakoan herritarrak subjektu aktibo bihurtuz.

## 2.2. PROZESUAREN ESKEMA ETA KRONOGRAMA

Aipatutako helburuak lortzeko, hona hemen jarraitu den lan prozedura modu grafikoan:





## AURRELANAK

Egitasmoa bera martxan jarri aurretik egindako lanak hauek izan ziren:

- Talde eragilea sortu: prozesuaren antolaketa eta jarraipen lanak egiteko sortutako taldea. Bertan mankomunitateko bi euskara teknikariak, Batzorde Erabakitzaileko ordezkari bat eta Elhuyar Aholkularitzako teknikaria aritu ziren. Lau kide horiek berak izan ziren lan saioak dinamizatu zituztenak.
- Prozesua eta lan egutegia adostu: talde eragilearen lehenbiziko lana kronograma edo lan egutegia adostea izan zen, egitasmoaren urrats bakoitza noiz egin zehazteko
- Komunikazio plana diseinatu eta ekintzak martxan jarri: komunikazioa, gisa honetako prozesuetan, giltzarri izan ohi da, administrazioa, herriko eragile eta herritarren arteko lankidetzeta eta parte hartzearen kultura sobera hedatua ez dagoen gure gizartean ez baita erraza jendea honelako egitasmoetara erakartzea. Hori dela eta, talde eragileak komunikazio plana diseinatu eta garatu zuen, prozesuak iraun zuen bitartean komunikazioa egokia izango zela bermatzeko. Komunikazioa prozesu guztian zehar landu izan zen, baina batez ere hasiera eta bukaeran: hasieran, Bortzirietako eragileei egitasmoaren berri eman eta parte hartzeko zituzten aukerak jakinarazteko, eta, bukaeran, egitasmoaren emaitzak jendarteratzeko. Laburbilduz:

Prozesua abiatzeko komunikazioa:	<ul style="list-style-type: none"><li>• Prozesu osoan erabiltzeko irudia diseinatu: kartela, bannerra...</li><li>• Herrietako euskara batzordeetan lan saioetako parte hartzaileen zerrendak osatu eta haiekin harremanean jarri: eskutitza, banakako harremana, mailing-a, telefonoz...</li><li>• Mankomunitatearen webgunea eta sare sozialak.</li><li>• Komunikabideak (batik bat eskualdekoak): prentsa oharra, elkarriketak...</li></ul>
Egindako lanaren inguruko komunikazioa:	<ul style="list-style-type: none"><li>• Parte-hartzaileei egindako lanaren txostena bidali eta osatzeko aukera eman.</li><li>• Aurkezpen publikoa.</li></ul>



- Elkarrizketak eragileei: batik bat aitzinetik egindako lanaren balorazioa egiteko helburuarekin egin ziren elkarrizketok. Bortzirietako euskalgintzan edota mankomunitateko egituretan aritutako zazpi eragileri egin zizkieten elkarrizketak mankomunitateko bi teknikariek eta Elhuyar Aholkularitzako teknikariak. Horiekin ebaluazio txostena osatu zen.
- Lan saioetarako eragileak identifikatu eta zerrendak osatu. Gehienbat euskara batzordeen egitekoa izan zen, eta kontuan hartu dira generoaren, adinaren eta sektorearen ikuspegia, baita herri guztietako parte hartzaileak izatea ere. Parte hartzaileak lau lan taldeetan banatu dira: transmisioa, arlo sozio-ekonomikoa, gazteak eta herrigintza.

### **LAN SAIOAK**

Hasiera-hasieratik gogoeta egiteko lau lan talde berezi ziren: transmisioa, arlo sozio-ekonomikoa, gazteak eta herrigintza, eta horien arabera egin ziren bi lan saioak. Lehen lan saioa apirilaren 20an egin zen, eta 83 lagunek parte hartu zuten. Lan saioaren zati batzuetan denak elkarrekin aritu baziren ere, gehienbat lau taldeetan bereizita lan egin zuten, gai hauek lantzeko:

- Aurreko lana baloratu.
- Bizipen pertsonalak landu.
- Egoeraren diagnostikoa egin.

Bigarren lan saioa maiatzaren 4an izan zen, eta ez zen hain jendetsua izan (60 lagun inguru). Kasu honetan ere, hasiera eta bukaera denok batera egin zuten, eta tartean lau lan taldeetan aritu ziren, gai hauek lantzen:

- Diagnostikoa osatu.
- Aitzinera begirako proposamenak landu.
- Proiektuari koherentzia eman.





## EMAITZAK

Bi lan saioen ondotik talde eragileak emaitzak bateratu zituen eta txostenaren zirriborroa prestatu. Parte hartzaile guztiei e-postaz bidali zieten txostena, egun batzuetan osatzeko aukera emanez. Horren ondotik, ekainaren 7an emaitzen aurkezpen publikoa egin zen. Hartara deituak izan ziren elkarrizketatuak eta lan saioetako parte hartzaileak, baita batzordeetako kideak ere (guztira 30 lagun joan ziren).

Aurkezpen horretan erran bezala, gogoeta prozesuaren emaitzak 2014-2017 aldirako plan estrategikoa osatzeko oinarria izanen dira. Plan hori osatzea eta erredaktatzea euskara teknikarien esku gelditu zen.

## KRONOGRAMA

LANAK	Otsaila-ekaina													
	Otsaila		Martxo			Apirila			Maiatza			Ek.		
Prozesua antolatu	█	█												
Elkarrizketak egin eta txostena osatu			█	█										
Talde eragilea osatu				█										
Komunikazio-plana landu eta adostu	█	█												
Komunikazio-plana garatu			█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█
Lan mahaien batzarrak							█		█					
Txostena idatzi eta adostu											█	█	█	█
Prozesuaren aurkezpena egin														█



### 2.3. METODOLOGIA

Elhuyar Aholkularitzak Reflect Ekintza ikuspegi metodologikoan oinarritzen du bere lana. Reflect Ekintza ikuspegi dinamikoa da eta era guztietako lanak egiteko aplikatu ohi da; adibidez: hizkuntza gutxituen normalizazio prozesuetan, ikuskaritza soziala egiteko, aurrekontuak aztertzeko, giza eskubideak lantzeko, emakumeen eskubideak lantzeko, etxeko biolentziaren aurka, udal planifikazioa egiteko, azterketa politikoa, osasuna eta abar.

Metodologia honen abiapuntua pertsonak dira, ekintza eragiten, bideratzen edota egiten duten pertsonak, hain zuzen ere. Hortik abiatuta, gure errealitatea, bai hurbilekoa, baita estrukturala ere, “irakurri” egiten dute. Poliki-poliki, prozesua subjektibitatean oinarriturik eraikiz joaten dira eta subjektibitatearen sozializazioak taldearen posizionamendua dakar berekin.

Hauek dira Reflect Ekintza metodologiaren ezaugarri nagusiak:

- Parte hartzea eragiten du: Pertsonak zerbait bizi dutenean, beraiena egiten dute (“jabetzen dira”) eta horrela inplikatu egiten dira.
- Bibentziala da: Norberaren bizipenetan oinarrituta aztertzen da egoera.
- Talde izaera sendotzen du: Horrela, taldea bera prozesuaren eragile izatea lortzen da. Pertsona bakoitzak bere espektatibak ditu eta garrantzitsua da taldearen dinamikan kontuan hartzea.
- Kalitatezko parte hartzea lortzeko lan eskema mailakatua da: Banakako lanetik hasita, talde txikitan eztabaidatu eta adosten da, eta, bukatzeko, denen artean berriz ere eztabaidatu eta adosten da.
- Bisuala da. Egoerak bisualki planteatzen dira errazago aztertu ahal izateko.
- Aldaketa eragiten du. Ekintzarekiko identifikazioak aurrera egitea dakar; taldeak berak proposatutakoa bultzatzen baita.

Laburbilduz, hau lortzen da: Taldeko pertsonen esperientzietan oinarrituta eta parte hartzea eragiten duten zenbait teknika erabiliz, hausnarketarako bideak jarri eta aldaketarako ekintzak lantzeko oinarriak finkatzea.

### 3. EMAITZAK

#### 3.1. DIAGNOSTIKOA

Ondorengo orrietan Bortziritako euskararen egoeraren berri jasoko dugu datuetan. Lehendabizi, datu kuantitatiboak aurkeztuko ditugu, datu orokorrak eta esparruka. Eta ondoren, datu kualitatiboak, batez ere, herritarrekin egindako lan-saioetatik jasotakoak.

#### 3. 1.1. DATU KUANTITATIBOAK

##### DATU OROKORRAK

##### EUSKARA ZERBITZUA

2013	
Euskara zerbitzuaren aurrekontua guztira	262.549,12
Euskara-zerbitzuaren baliabideak:	
Langile kopurua	3,00
Ordu kopurua	4.052,44

**BIZTANLERIA**

<b>2013</b>	
Biztanleria	8.702,00
Biztanleria adin taldeka:	
Biztanleria <19	% 19,29
Biztanleria 20-65	% 61,75
Biztanleria > 65	% 18,97
Biztanleriaren dentsitatea (Bizt./Km <sup>2</sup> )	46,78
Biztanleria jaioterriaren arabera:	
Biztanleria egoiliarra. Foru Erkidegoan jaiok	% 74,84
Beste probintzietan jaiok	% 17,97
Atzerrian jaiok	% 7,18

<b>BIZTANLEAK JAIOTZA LEKUAREN ARABERA. BORTZIRIAK, 2008</b>		
	<b>Kopuru absolutuak</b>	<b>%</b>
Bortzirietan jaiotakoak	5.175	60,6
Nafarroan jaiotakoak (ez Bortzirietan)	1.343	15,7
Espainiako Estatuan jaiotakoak (ez Nafarroan)*	1.489	17,4
Espainiako Estatutik kanpo jaiotakoak*	529	6,2

*Hegoaldeko beste hiru herrialdeetako herritarren datuak hor sartuta daude. Iparraldeko lurraldeetako herritarren datuak hor daude sartuta.*



- Bortziriako herritarren erdia baino gehiago (% 60,6) Bortziritan jaio da. Nafarroan jaio da (% 15,7) eta Nafarroatik kanpoko Espainiako Estatuko lurraldeetan (% 17,4). Espainiako Estatutik kanpo jaiotakoak 529 lagun dira (errolatutako herritarren % 6,2).

<b>BIZTANLERIAREN BANAKETA NAZIONALITATEAREN ARABERA. BORTZIRIAK, 2008</b>		
	<b>Biztanleak</b>	<b>%</b>
Espainiako Estatutik kanpokoak	395	4,9
Espainiako Estatuko nazionalitatea dutenak	8.141	95,1
<b>Guztira</b>	<b>8.536</b>	<b>100,0</b>

- Bortziritan Espainiako estatutik kanpoko nazionalitatea duten herritarrak % 4,9 dira.

<b>BIZTANLERIAREN BANAKETA NAZIONALITATEAREN ARABERA. NAFARROA ETA BORTZIRIAK, 2008 (%)</b>		
	<b>Nafarroa</b>	<b>Bortziriak</b>
Espainiako Estatutik kanpokoak	10,5	4,9
Espainiako Estatuko nazionalitatea dutenak	89,5	95,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

- Proportzioan, Espainiako ez beste nazionalitatea duten herritarrak dezente gutxiago dira Bortziritan Nafarroan baino (erdia, hain zuzen ere).



**Espainiako Estatutik kanpoko nazionalitatea duten biztanleak, nazionalitatearen arabera. Bortziriak, 2008**

	Kop.	%
<b>Europa guztira</b>	<b>196</b>	<b>49,6</b>
<i>Europar Batasuna (27)</i>	183	46,3
Errumania	36	9,1
Portugal	24	6,1
Frantziako Estatuak	37	9,4
Bulgaria	46	11,6
Alemania	4	1,0
Erresuma Batua	5	1,3
Italia	3	0,8
<i>Europar Batasuna ez den Europa</i>	13	3,3
Ukraina	12	3,0
<b>Afrika guztira</b>	<b>14</b>	<b>3,5</b>
Maroko	8	2,0
Nigeria	1	0,3
<b>Amerika guztira</b>	<b>182</b>	<b>46,1</b>
Kolonbia	7	1,8
Brasil	23	5,8
Bolivia	14	3,5
Ekuador	69	17,5
Argentina	28	7,1
Txile	2	0,5
Cuba	11	2,8
Peru	8	2,0
Dominikar Errepublika	1	0,3
Uruguay	7	1,8
<b>Asia guztira</b>	<b>3</b>	<b>0,8</b>
<b>Guztira</b>	<b>395</b>	<b>100,0</b>

Iturria: INE. Biztanleria udal-errola

<b>BIZTANLERIAREN BANAKETA NAZIONALITATEAREN ARABERA. NAFARROA ETA BORTZIRIAK, 2008 (%)</b>				
	<b>Nafarroa</b>		<b>Bortziriak</b>	
	<b>Kop</b>	<b>%</b>	<b>Kop</b>	<b>%</b>
Amerika	27.937	43,0	182	46,1
Europar Batasuna (27)	21.847	36,6	183	46,3
Afrika	11.711	18,0	14	3,5
Asia	980	1,5	3	0,8
Gainerako Europa	2.546	3,9	13	3,3
Ozeania eta apatridak	24	0,0	0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>65.045</b>	<b>100,0</b>	<b>395</b>	<b>100,0</b>

- Proportzioan, gehiago dira Ameriketatik etorritakoak Bortziritan (% 46,1) Nafarroan baino (% 43,0). Aldea nabarmenagoa da Europar Batasunetik etorritakoen kasuan: 10 puntu gehiago dira Bortziritan. Afrikatik etorritakoak, berriz, askoz gutxiago dira Bortziritan (% 3,5 baino ez).

## EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

### KOKAPEN OROKORRA

2001ean, euskaldunak biztanleen % 27,6 ziren Euskal Herrian. Nafarroan, berriz, % 11,8. Urte berean egindako kale neurketaren emaitzen arabera, erabilera portzentajea % 13,5 zen. Nafarroan, berriz, % 6,7.

### Euskararen ezagutza Bortzirietan

	<b>2001eko ZENTSUA. EUSKARA GAITASUNA</b>					
	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	GUZTIRA
Euskaldunak	614 94,9	2.421 71,0	688 90,3	507 87,1	2.071 80,8	<b>6.301</b> <b>79,1</b>
Ia-euskaldunak	32 4,9	530 15,5	47 6,2	57 10	320 12,5	<b>986</b> <b>12,4</b>
Erdaldunak	1 0,2	460 13,5	27 3,5	17 2,9	173 6,7	<b>678</b> <b>8,5</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>647</b>	<b>3.411</b>	<b>762</b>	<b>581</b>	<b>2.564</b>	<b>7.965</b>

*2 urtetik gorako biztanleak kontuan hartzen dira.*

- Bi urtetik gorako biztanleen artean, Bortzirietan, % 79,1 dira euskaldunak.
- Arantzakoa da euskaldunen portzentajerik handiena (%94,9), eta Berakoa txikiena (%71,0).
- Euskaldunen zenbatekoaren datu horren harira, Bortzirietan gune soziolinguistiko euskaldunen barne sailka dezakegu.

%	<i><b>EUSKARAZ ONGI MINTZATU. BILAKAERA.</b></i>			
	<b>2001</b>	<b>1996</b>	<b>1991</b>	<b>1986</b>
<b>ARANTZA</b>	98.9	99.0	99.3	95.7
<b>BERA</b>	72.8	66.7	70.5	63.4
<b>ETXALAR</b>	92.3	90.0	90.4	90.0
<b>IGANTZI</b>	92.1	92.5	95.1	93.3
<b>LESAKA</b>	83.3	78.8	80.1	74.7
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>81.6</b>	<b>77.6</b>	<b>79.9</b>	<b>74.7</b>

- Bilakaera positiboa bada ere, aldaketa ez da nabarmenegia izan. Erdaldunek ez dute “beharrik” euskara ikasteko.

%	<i><b>EUSKARAZ IRAKURRI ETA IDAZTEKO GAI</b></i>	
	<b>ONGI IRAKURRI</b>	<b>ONGI IDATZI</b>
<b>ARANTZA</b>	66,9	49,8
<b>BERA</b>	59,4	55,2
<b>ETXALAR</b>	68,5	44,2
<b>IGANTZI</b>	58,3	48,2
<b>LESAKA</b>	53,0	46,0
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>58,7</b>	<b>50,3</b>

- Euskaldunen ehuneko handi bat alfabetatugabea da, eta horrek euskararen egoera diglosikoa agerian uzten du.




## Euskararen erabilera Bortziritan

<b>KALE ERABILERA 2011</b>						
	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	BORTZIRIAK
EUSKARAZ	85,4	43,9	50,3	83,3	65,7	<b>60,5</b>
GAZTELANIAZ	14,6	56,1	49,7	16,7	34,3	<b>39,5</b>

- Bortz herrien artean alde nabarmena dago erabilerari dagokionez.
- Arantzakoa da erabilera maila altuena (%85,4), eta, Berakoa, berriz, baxuena (%43,9).
- Arantza eta Igantziko portzentajeak antzekoak dira.
- Etxalarko emaitzek aparteko azalpena eskatzen dute. Kanpoko jende aunitz zebilen, batez ere larunbateko neurraldian.

<b>EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA BORTZIRIETAN 1994-2011</b>										
	1994	1995	1997	1999	2001	2003	2006	2008	2010	2011
EUSKARAZ	61	66	69	62	63	60	59	68	66	61






- Euskararen erabileraren bilakaera ez da norabide bakarrekoa izan azken urteotan; batzuetan gora egin du eta bertzeetan behera.
- 10 neurketa egin ditugu metodologia bera errepikatuz. Emaitza apalenaren eta altuenaren artean 10 puntuko aldea dago (%59 eta % 69). Horiek dira Bortzirietan beheko eta goiko atalaseak.
- Emaitza guztien media % 63,5 da.

	<b>ERABILERAREN BILAKAERA ADIN TALDEKA BORTZIRIETAN</b>			
	<b>HAURRAK</b>	<b>GAZTEAK</b>	<b>HELDUAK</b>	<b>ZAHARRAK</b>
1994	74	47	54	78
1995	86	60	51	69
1997	89	62	51	84
1999	67	57	57	72
2001	82	60	46	53
2003	82	67	45	60
2006	79	81	39	62
2008	82	76	55	64
2010	88	84	48	53
2011	79	76	46	44

- Haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak; ia neurketa guztiek erakusten dute hori. Azken urte hauetan gora egin du erabilerak haurren urtean, eta, neurketa gehienetan, % 80tik gorakoa da zenbatekoa.
- Gazteen artean ere, nabarmen goranzkoa izan da joera. Mailarik altuena, 2010ekoa da (% 84), eta 2011koa eta 2008koa parekoak dira (%76).
- Helduen artean, euskararen erabilerak beheranzko joera izan du, eta, bi neurketatan izan ezik, mailarik apalena helduen artean jaso da. 10 neurketa hauen media % 50 ingurukoa da.
- Adinekoen artean erabilerak beherantz egin zuen hasieran nabarmen, eta gero egonkor mantendu zen. Azkeneko bi neurketetan, 2010ean eta 2011n, behera egin du.

Ezagutza eta erabilera parez pare

	<b>EUSKARA GAITASUNA, ETXEKO HIZKUNTZA ETA KALE ERABILERA %</b>
Euskaldunak (2001)	79,1
Etxeko hizkuntza euskara (2001)	57,5
Etxeko hizkuntza euskara eta biak	76,6
Kale erabilera (2011)	60,5



- Hizkuntza gutxitu guztietan gertutik zaindu beharreko kontua da ezagutza eta erabilera datuen arteko desoreka. Aldea gutxitu ahala hiztun komunitatea trinkotu egiten dela esan genezake, eta, neurri handi batean, normalkuntza prozesuan bide onetik goazela.

- Esku artean ditugun datuei erreparatuta, kale erabileraren datua (% 60,5) baxuena da, euskara gaitasunarekin (% 79,1) eta etxeoko hizkuntzarekin (% 76,6 euskara eta euskara zein gaztelania batuta) konparatzen badugu.
- Ezagutzaren eta erabileraren artean jauzi handia dago (ia 20 puntukoa), eta hori kezkatzeko moduko datua da.

## DATUAK ESPARRUKA

### Familia

<b>2001eko ZENTSUA. AMA HIZKUNTZA</b>						
	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	GUZTIRA
Euskara	626	2.134	671	496	1.929	<b>5.856</b>
	96,5	62,6	88,1	85,2	75,2	73,5
Gaztelania	11	917	57	56	447	<b>1.488</b>
	1,7	26,9	7,5	9,6	17,4	18,7
Biak	10	313	18	30	176	<b>547</b>
	1,5	9,2	2,4	5,2	6,9	6,9
Bertzerik	0	47	0	0	12	<b>75</b>
	0	1,4	0	0	0,5	0,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>647</b>	<b>3.411</b>	<b>762</b>	<b>582</b>	<b>2.564</b>	<b>7.966</b>

*Etxalarren, Igantzin eta Lesakan 3 urtetik gorako biztanleen ama hizkuntza jaso dute (hala ere, kopuruak berdinak dira Etxalarren eta Lesakan).*

- Horren arabera, Bortzirietan euskara ama hizkuntza gisa jaso dutenen portzentajea % 73,5 da, eta euskara eta gaztelania biak ere jaso dituztenena, % 6,9.

<b>BORTZIRIAK TRANSMISIOA 2001</b>		
<b>AMA HIZKUNTZA</b>		<b>EUSKARAZ ONGI</b>
Euskara	Biak	
5.856	547	
73,5	6,9	
6.403	6.498	
80,4	81,6	
<b>95</b>		
<b>+1,2</b>		


*Euskaraz ongi mintzatzen direnen taldea aintzat hartuta.*

- Ama hizkuntza eta euskaraz ongi mintzatu datuak parekatzen baditugu, emaitza positiboa da. Hortaz, hizkuntzaren transmisioari ongi eutsi zaiola erran daiteke.

<b>BORTZIRIAK ETXeko HIZKUNTZA 2001</b>	
Euskara (%)	57,50
Euskara eta gaztelania (%)	20,10
Gaztelania (%)	21,80
Beste bat (%)	0,60

## Euskalduntzea-Prestakuntza

	HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA							Hazkundera %
	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013	
1. URRATSA	6	10	0	5	21	0	11	
2. URRATSA	7	5	14	7	7	15	0	
3. URRATSA	13	12	0	7	8	6	0	
4. URRATSA	7	10	16	0	6	0	14	
5. URRATSA	0	0	0	16	0	0	0	
6. URRATSA	0	0	0	0	5	0	0	
7. URRATSA	6	6	0	0	0	0	8	
8. URRATSA	0	0	6	0	0	12	0	
9. URRATSA	7	6	6	0	0	0	0	
GOI URRATSA	0	0	0	15	0	0	0	
ON LINE	0	0	0	4	0	3	5	
ALFABETATZEA	18	16	0	0	14	9	5	
EGA	10	6	17	7	7	8	0	
<b>GUZTIRA</b>	<b>74</b>	<b>71</b>	<b>59</b>	<b>61</b>	<b>68</b>	<b>53</b>	<b>43</b>	<b>-18,9</b>



- Bi urtez jarraian ikasle kopuruak behera egin du (joan den urtearekiko % 18,9ko jaitsiera).
- Euskaltegiaren egoera ekonomikoa larria da, Nafarroako Gobernuak ematen zien laguntza ekonomikoa izugarri gutxitu baita. Azken 10 urteotan %40 murriztu du diru partida hori, eta horri bizitzaren igoera gehitzen bazaio, orain dela 10 urte kobratzen zutenaren herena inguru jasotzen dute orain. Bertzalde, bertako taldeak txikiak dira, batez bertze ez dira 7ra iristen, eta adibidez, Iruña edo Gasteizen 14 inguru izaten dira taldeko. Gureak herri txikiak izanik zaila da talde handiagoak izatea. Horrek asko garestitzen du euskaltegiaren jarduna: gastua berdina izanik (irakaslea), diru sarrerak erdiak dira (matrikula eta Nafar Gobernuakoa). Mankomunitateak talde orduko irizpideari jarraiki ematen du bere diru laguntza.

<b>ALFABETATZE BEHARRAREN ESTIMAZIOA 1996 ETA 2001</b>								
	<b>Euskaldun alfabetatuak</b>		<b>Euskaldun partzialki alfabetatuak</b>		<b>Euskaldun alfabetatu gabeak</b>		<b>Alfabetatze beharra*</b>	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>1996</b>	2.925	45,7	2.661	41,6	815	12,7	3.476	54,3
<b>2001</b>	3.989	63,3	2.035	32,3	277	4,4	2.312	36,7

\* Euskaldun partzialki alfabetatuak+euskaldun alfabetatu gabeak.

<b>2013</b>	
Herriko ikasle kopurua inguruko euskaltegietan	56,00
Ikasleak/ (erdaldunak+ia euskaldunak)	46,00
Ikasleei eskainitako diru-laguntzak, guztira	2.000,00
Xede bereziekin antolatutako ikastaro kopurua	3,00
Xede bereziko ikastaroetako ikasle kopurua	22,00



## Irakaskuntza

### Hezkuntza ez unibertsitarioa

	MATRIKULAZIO DATUAK 2012-2013				
	A	B	D	X	GUZTIRA
HH GUZTIRA	9	15	245		269
%	3,35	5,58	91,08	0,00	100,00
LH GUZTIRA	12	48	475		535
%	2,24	8,97	88,79	0,00	100,00
DBH GUZTIRA	20	32	260		312
%	6,41	10,26	83,33	0,00	100,00
BATX. GUZTIRA	0	0	90		90
%	0,00	0,00	100,00	0,00	100,00
HEZ. Z. GUZTIRA	0	0	0	58	58
%	0,00	0,00	0,00	100,00	100,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>41</b>	<b>95</b>	<b>1070</b>	<b>58</b>	<b>1264</b>
%	3,2	7,5	84,7	4,6	100,00

%	A	B	D
1996-1997	0.0	15.8	84.1
1997-1998	0.0	14.1	85.9
1998-1999	2.3	12.3	85.4
1999-2000	3.3	9.3	87.4
2000-2001	3.4	7.9	88.7
2001-2002	2.4	10.0	87.6
2002-2003	3.4	12.6	84.0
2003-2004	4.9	11.7	83.4
2004-2005	3.5	11.4	85.1
2005-2006	2.9	11.2	85.9
2006-2007	3.3	9.9	86.8
2007-2008	3,1	9,2	87,7
2008-2009	2,9	9,4	84,7
2009-2010	2,6	8,6	86,0
2010-2011	3,0	8,2	86,0
2011-2012	2,9	8,2	85,0
2012-2013	3,7	8,5	87,8



- Derrigorrezko ikasketetan D eredia da nagusi. Hala ere, ez da ez B eredia ezta A eredia ere desagertzeko joerarik sumatzen. Are gehiago, ikus daitekeenez A eredia hagitik ikasle gutxirekin mantentzen jarraitzen dute.
- Heziketa zikloetan ez dago hizkuntz eredurik. Beraz, ikasgaiak gaztelaniaz eskaintzen dira.

### Unibertsitatea eta euskara

Andoaingo Aztiker ikerketa enpresak unibertsitatearen eta euskararen inguruan egindako *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan 2007* ikerketaren ondorio nagusiak ekarriko ditugu gogora:

➤ Unibertsitatean hutsune handiak daude euskarazko ikasgaien eskaintzan, batik bat Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Bortziritar gehienek euskaraz ikasi nahi luketela (dena euskaraz edo ia dena euskaraz, % 80k).

1. Ikasleen unibertsitate aurreko ibilbidea eta hizkuntza profila.

➤ Inkestaren artean hamarretik bederatzik (% 90,8) D ereduan egin zuten batxilergoa. A ereduan ikasi zuten %4,6k eta B ereduan %3,6k.

2. Bortzirietako gazteak unibertsitateara.

➤ 2000tik 2006ra batxilergoa egin zuten bortziritarren erdiak baino gehiagok (% 54,6) hasi edo bukatu zituzten unibertsitate ikasketak.

3. Bortziritarren unibertsitate hautua.

➤ Azken sei urte hauetan ikasketa mota hauek izan dira nagusi Bortziritarren artean: Ikasketa teknikoak (% 29,5), Giza eta Gizarte Zientziak (% 20,2) eta Irakasle Ikasketak (% 14).

➤ Unibertsitate aukeratuenak: Bortzirietako ikasleen herenek (% 32,0) UPV-EHUko Donostiako campusera jo dute. Bigarren eta hirugarren tokian daude UPV-EHUko Gasteizko campusa (% 18,4) eta Bilboko campusa (% 11,2). Nafarroako bi unibertsitateak (NUP eta Universidad de Navarra) bosgarren eta seigarren tokian daude hurrenez hurren.

➤ Ikasketak A ereduan egin dituzten ikasleek joera handiago dute NUPera eta *Universidad de Navarrara* joateko.



- Bortzirietako ikasleen % 16ak baino ez du ikasten Iruñean. Gainerako % 84ek bertze norabait jo dute, gehienek Donostira (% 36,8) eta Gasteizera (% 18,4).
4. Euskarazko eskaintza aukeratu dituzten unibertsitateetan.
- Bortzirietako ikasleen % 35,4rentzat aukeratu dituzten ikasketetan ikasgaien erdia baino gutxiago egiten ahal da euskaraz. % 15,7 ezin dute ikasgai bakarra ere ikasi euskaraz, eta % 12,6k bat edo bertze egiten ahal du.
  - Euskarazko eskaintza ahulena Nafarroako unibertsitateena da. NUPen ikasketak egiten dituztenen kasuan, % 63,6k ikasgai bat edo bertze baino ezin du euskaraz egin, eta % 18,2k bakar bat bera ere ez. *Universidad de Navarra*n ikasketak egiten duten % 33,3k ikasgaien bat egiten ahal du euskaraz, eta % 66,7k bakar bat bera ere ez.
5. Unibertsitate aukera eta euskara.
- Hiru ikasletik bik baino gehiagok % 68,3k euskarazko eskaintza handiena duen ikastokia aukeratzen du ikasketak egiteko.
  - Euskarazko eskaintza ugariena izatea: unibertsitatea edo ikastokia aukeratzeko arrazoi nagusia izan da ikasleen % 52,5entzat, edo kontuan hartu dute arrazoi nagusia izan ez bada ere (ikasleen % 40,2).
6. Unibertsitatea eta euskara: Bortzirietako ikasleen nahia.
- Ikasleen % 69,2k euskara hutsez egin nahiko lituzkete ikasketak, eta % 13,1ek gehiena euskaraz. % 1,5ek soilik diote gaztelania hutsez ikasi nahiko lukeela.
  - D ereduan ikasi dutenen artean pisu handiagoa dute euskara hutsez ikasi nahi dutenak (% 75,4).

## Administrazioa

Esparru honi dagokion datu bilketa udal bakoitzeko erabilera plana jasotzen duen txostenean ikusten ahal da.

## Merkataritza eta ostalaritza, lan mundua, aisialdia eta kirola

### Bai Euskarari Ziurtagiria

	Bai Euskarari Ziurtagiriak Bortzirietan 2005-2013								
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Arantza	7	12	10	12	12	13	13	13	13
Bera	50	58	51	51	47	40	38	35	29
Etxalar	9	11	8	9	9	9	9	8	7
Igantzi	7	9	6	8	9	8	8	8	9
Lesaka	48	45	37	35	34	34	27	26	25
<b>Guztira</b>	<b>121</b>	<b>135</b>	<b>112</b>	<b>115</b>	<b>111</b>	<b>104</b>	<b>95</b>	<b>90</b>	<b>83</b>

### 3.1. 2. DATU KUALITATIBOAK

FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA		
INDARGUNEAK		AHULGUNEAK
<b>EUSKARAREN TRANSMISIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familia indargunea izan behar da.</li> <li>• Familia euskaldunen kopuru handia.</li> <li>• Familian transmititzen da oinarria, baloreak eta euskararekiko maitasuna.</li> <li>• Familia kontzientziatuak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gurasoen erabilera eskasa.</li> <li>• Kontzientziatu gabeko familiak.</li> </ul>
EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA		
INDARGUNEAK		AHULGUNEAK
<b>EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oro har, euskaraz dakiten herritarren kopuru altua.</li> <li>• Jende aunitz prozesutik pasa da eta oraindik aukera hori dago.</li> <li>• Baliabideak eta egitura.</li> <li>• Aitzinera segitzeko konpromisoa, konstantzia eta borondatea.</li> <li>• Konpromiso pertsonala.</li> <li>• Baliabideak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gobernuaren laguntza falta, murrizketak eta batzuetan trabak.</li> <li>• Motibazioaren gainbehera.</li> <li>• Krisi ekonomikoa.</li> <li>• Ez dago beharrik.</li> <li>• Euskaldunberrien lotsa eta zaharren erreferentzialtasun eza.</li> </ul>



### **Alfabetatzeari buruzko jarrerak**

- Alfabetatzeari (irakurrian eta idatzian euskaraz ongi eta eroso aritzeari) balorea ematen diote elkarrizketatuek (ez dugu diskurtso ezaxola edo gutxieslerik aditu). Bertzerik da horretarako premia duenak euskara maila hobetzeko euskaltegiaren izena emateko erabakia hartzea.
- Orokorrean ohitura gutxi dute parte hartzaileek euskaraz irakurri eta idazteko.
- Elkarrizketatuen artean iritzi ezberdinak aditu ditugu alfabetatzeko behararen inguruan. Batzuentzat beharrezkoa da hizkuntza ongi erabili eta menperatzeko, idazteko, eta seme-alabekin hizkuntza egoki erabili eta eurei laguntzeko, administrazio publikoan lan egiteko, eta hainbat udal dokumentu ulertzeko. Bertze batzuen iritzi, ez da beharrezkoa, mesedegarria baizik. Batzuek diote tamalez ez dela beharrezkoa: euskaraz alfabetatu gabea izanik ederki bizi daitekeela hemen.
- Euskaraz irakurtzen eta idazten moldatzen ez direnek askatasun edo autonomia falta nabaritzen dute hiztun bezala hainbat arlotan moldatzeko.
- Alfabetatzea eta euskara maila hobetzea hainbat gauzatarako da beharrezkoa (zenbait lanpostutarako, hainbat dokumentu ulertzeko, euskaraz irakurtzeko eta idazteko gai izateko, etab.) edo gutxienez onuragarria. Gurasoek seme-alabei laguntzeko (bertzeak bertze, eskolako zereginetan) ezinbertzekoa dela azpimarratu dute hainbat parte hartzailek.
- Alfabetatu zirenek arrazoi hauek eman dituzte prozesua burura eramateko: lana edo titulua lortzea, seme-alabei laguntzea, euskalkiaz gehiago jakitea, eta jokoz kanpo ez gelditzea.
- Alfabetatu direnek edo orain bide horretan ari direnek, orokorrean, aurreikuspenak bete dituzte (edo betetzen ari dira): lana edo titulua lortzea, irakurketa eta idazketa hobetzea, eta seme-alabei modu egokian laguntzea.
- Alfabetatze prozesua burutu dutenek bertze onura batzuk ere aipatu dituzte, irakurri eta idazteko gai izateaz gain: euskara batua ikasi eta ulertzea (bertze herrialdeetako euskaldunekin elkar ulertzea) eta euskalkian eta bertako hiztegian sakontzea.
- Nolanahi ere, bada etsipen puntu bat elkarrizketatuen mintzoan, izan ere, alfabetatzearen kontrako diskurtsoak ez badago ere, agerikoa da sozialki ez dela lehentasuntzat jotzen. Hortaz, kontzientziario lanaren beharra sumatzen dute, eta horretan eragin beharra dute baikorki euskara normalizazioan ari diren eragileek.

### **Euskaltegiei buruzko iritziak**

- Elkarrizketatuen iritzi euskaltegiak funtsezko funtzioa betetzen du herritarrak (bertakoak zein kanpokoak) euskaldundu eta alfabetatzen, eta bertako hizkuntzaren eta kulturaren transmisioan.
- Euskaltegien eskaintzari buruzko ez ezagutza aitortzen badute ere, euren lanari buruzko balorazioa hagitik baikorra da.



## EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2014-2017

- Eskaintza errealitatera egokitzen da euren iritziz. Herritarren kontzientziario eta motibazio eskasa jotzen dituzte arazo nagusizat.
- Euren ustez, adin tarte zabal batean ikastetxeek bermatu dute euskararen ezagutza, horregatik azkeneko hamarkadetan jende gutxiago dabil euskaltegietan.
- Orduz irekiak eskaintzea ongi baloratzen da.
- Taldeak osatu eta mantentzeko, ikasleek konpromiso handiagoa beharko lukete.
- Irakasleak motibazio iturri garrantzitsua dira. Euskaltegietan irakatsiko dute irakasleen prestakuntza eta motibazioa hagitik presente edukitzeko gaia da. Gaitasun pedagogikoak landu behar dira, eta irakasle onak sortu eta hautatu.

HEZKUNTZA		
	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
HEZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• % 90-95 D eredia.</li> <li>• Irakasle batzuen konpromisoa.</li> <li>• Guztion(tzat) aukera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• A eredia eskaintzen da oraindik. Hezkuntza sistemak ez du bermatzen ikasle guztiek euskara ikasiko dutela.</li> <li>• Lanbide heziketan eta unibertsitatea.</li> <li>• Arautu izaera.</li> <li>• Nafar Gobernuaren murrizketak.</li> <li>• Euskalkia eta bertako lexikoa galtzen.</li> <li>• Hizkuntzaren kalitatea mantentzeko zailtasunak.</li> <li>• Gaztelaniaren indarra eta eragina.</li> <li>• Irakasle batzuen zabarkeria.</li> <li>• Instituzioen garrantzia, instituzioekiko menpeko.</li> <li>• Zentralizazioa "LOMCE".</li> </ul>

ADMINISTRAZIOA		
	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
ADMINISTRAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• (Udal) administrazioan eman diren pausoak.</li> <li>• Bortzrietako bortz udalak izanen dira UEMAko kide. Erabilera planak aplikatu eta garatzen.</li> <li>• Euskararen estatusa (hobetu da).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bortzrietako bi mankomunitateak. Erabilera arautu eta planifikatu gabe dago.</li> <li>• Nafarroako administrazioa (osasuna, enplegua, etab.) eta estatukoa (gizarte segurantza, trafikoa, etab.).</li> <li>• Babes politiko-juridikorik eza.</li> </ul>



ARLO SOZIO-EKONOMIKOA	
INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<b>MERKATARITZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diagnostika egin beharra.</li> <li>• Sentsibilizazio eskasa.</li> <li>• Bezero eta erabiltzaileen aldetik presiorik ez.</li> <li>• Gaitasun eskasa: terminologia, etab.</li> </ul>
<b>ENPRESAK</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Dena egiteko dago.</li> <li>• Kooperatibismoa aukera bezala.</li> <li>• Sindikalgintzan dabiltzan gehienak euskaldunak dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lege babesik eza. Arlo sozioekonomikoan euskara erabiltzeko araurik ez, behartuta ez egotea.</li> <li>• Krisia aitzakia inbertsiorik ez egiteko.</li> <li>• Borondaterik ez.</li> <li>• Administrazio eremua Nafarroan: gaztelaniaz.</li> <li>• Arlo sozioekonomikoan euskara erabiltzeko ohiturarik ez, terminologia ez menperatzea, gaitasun eskasa.</li> <li>• Hezkuntza-eremua: lanbide heziketa eta unibertsitatea gaztelaniaz.</li> </ul>
<b>ZERBITZUAK</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Zenbait denda eta komertziotan lehen hitza euskaraz..</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sentsibilizazio eskasa.</li> <li>• Diagnostika egin beharra.</li> <li>• Bezero eta erabiltzaileen aldetik presiorik ez.</li> </ul>

AISIALDIA		
	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<b>AISIALDIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gozamenarekin identifikatu; zeharka transmititu.</li> <li>• Monitorean lana</li> <li>• Eskaintza zabala</li> <li>• Aisialdi gehiena euskaraz da: bertsolaritza, dantzak, udalekuak, kirola, musika...</li> <li>• Euskararen eremu ez formala betetzen du (erregistro ludiko afektiboa). Benetan euskaraz bizitzea!!</li> <li>• Aisialdian (eremu ez formalean) haurrek gozatu egiten dute; eskaintza hori euskaraz izatearen garrantzia. Euskara=gozamena. Irabazitako esparrua.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aski da bat euskaraz ongi ez moldatzea erdara nagusitzeko.</li> <li>• Hedabide erdaldunak</li> <li>• Euskal hedabideei traba izugarriak</li> <li>• Gizartearen individualismoa</li> <li>• Gizartearen parte-hartzea gutxitzea</li> <li>• Kontzientziaren arabera, erraz ematen dugu amore.</li> <li>• Aisialdiari buruzko diagnostikoa dugu egiteke (euskarazko eskaintza zertan den musikan, kirolean, eskola orduz kanpoko ikastaroetan eta abarretan).</li> </ul>
GAZTEAK		
	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<b>GAZTEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskola eta alfabetatzeko aukera.</li> <li>• Idatzizkoa hobetu da.</li> <li>• Elkartasuna, giroa eta nortasuna.</li> <li>• Harrotasuna, ohorea eta bereizgarritasuna.</li> <li>• Euskal giroa.</li> <li>• Kultura.</li> <li>• Denetarako balio du.</li> <li>• Etorkizuna gara.</li> <li>• Erabilera, herriaren arabera.</li> <li>• Erabakitze aukera.</li> <li>• Gure esku dago euskara leku guztietan erabiltzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nerabezaroan kanpo-eragin handiagoa.</li> <li>• Erdarakadak (erdararen eragina).</li> <li>• Alferkeria</li> <li>• Gure hizkuntza gutxien dugu.</li> <li>• Kontzientzia falta.</li> <li>• Mitoak, menpekotasuna, heziketa, lotsa, eredu-falta, aurreiritziak...</li> <li>• Behar falta.</li> <li>• Hizkuntzaren fama txarra</li> <li>• Hizkuntzaren kalitatea eta aberastasuna</li> </ul>

KULTURGINTZA		
INDARGUNEAK		AHULGUNEAK
KULTURGINTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gaur egun antolatzen diren kultur ekitaldiak hein handi batean euskarazkoak dira.</li> </ul>	

KOMUNIKABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK		
INDARGUNEAK		AHULGUNEAK
